

UDALAREN OSOKO BILKURA

2011ko martxoaren 31ko ohiko bilera

BERTARATU DIRENAK

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO JAUNA

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL JN.

EAJ-PNV - AINARA URBIETA BERGARA ANDREA

EAJ-PNV- BEATRIZ RESA BARDECI ANDREA

EAJ-PNV- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO JAUNA

EAJ-PNV - M^a CARMEN URBIETA GONZALEZ ANDREA

EAJ-PNV- JON LOIZAGA CAYERO JN.

EAJ-PNV - JON PELI LAZKANO ALZAGA JAUNA

EAJ-PNV- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABALET JAUNA

EAJ-PNV- AINARA GUZMÁN URRUTIA AND.

PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO AND.

PSE-EE. LUIS MARIA PEREZ PEREZ JAUNA

PSE-EE- PILAR GRADOS GARCIA ANDREA

PSE-EE. J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO JAUNA

PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ AND.

PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES JN.

PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.

PP- FERNANDO PINTO PALACIOS JAUNA

EB-B.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SAINZ JN.

Leioako udaletxean, bi mila eta hamaikako martxoaren hogeita hamaikako arratsaldeko zazpiak eta bost direla, elizate honetako Udalaren Osoko Bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna**, izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta izatez zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute, Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoaren ondoretarako, baina aurretiaz Alkate-udalburu jaunak ohiko bileran parte hartzeko deia egin die, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarri hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- UDALAREN 2010eko EKITALDIKO AURREKONTUAREN AURREKONTU-EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO GERAKINA ONESTEN DITUEN ALKATETZAREN

DEKRETUAREN BERRI EMATEA: Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2011ko martxoaren 1eko 38. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, hark berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Aztertu da Alkatetzaren 2011-02-22ko 179. Dekretua; honakoa dio, hitzez hitz:

179/11 DEKRETUA:

“Aztertu dira 2010eko ekitaldiko **Udal Aurrekontuaren** aurrekontu-emaitza eta diruzaintzako gerakina; hona hemen laburpena:

AURREKONTU-EMAITZA		
Aintzatetsitako eskubide garbiak (1)	40.518.772,21	
Aintzatetsitako obligazio garbiak (2)	43.980.142,50	
Ordaindu gabeko obligazioen saldoa gutxitzea (3)	12.795,43	
Kobratu gabeko eskubideen saldoa gutxitzea (4)	549.468,29	
Aurtengo aurrekontuaren emaitza	-3.461.370,29	
Itxitakoen aurrekontu-emaitza (3-4)	-536.672,86	
AURREKONTU-EMAITZA (1-2+3-4)		-3.998.043,15
(-) Finantzazioko desbideratze positiboak		-3.565.746,17
(+) Finantzazioko desbideratze negatiboak		0,00
(+) Diruzaintzako gerakinekin finantzatutako gastuak		13.226.280,36
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA		5.662.491,04

DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EMAITZA		
Ekitaldi-bukaeran kobratu gabeko zordunak (+)		4.431.711,44
a) Aurtengo aurrekontua	3.397.497,51	
b) Itxitako aurrekontua	5.315.084,21	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketak	419.126,79	
d) Zalantzazko kobrantzako zordunak	-5.315.084,21	
e) Aplikatu gabeko diru-sarrerak	-604.196,57	
Ekitaldi-bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak (-)		4.178.621,43
a) Aurtengo aurrekontua	3.095.282,09	
b) Itxitako aurrekontua	345,58	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketen hartzekodunak	1.082.977,28	

d) Diru-sarrerak itzultzeko hartzekodunak	16,48	
e) Aplikatu gabeko ordainketak	0,00	
Bukaerako diruzaintzako funts likidoak (+)		33.825.394,06
a) Ekitaldi-bukaeran kutxan dagoena	0,00	
b) Diruzaintzako soberakinak	0,00	
Diruzaintzako gerakina, guztira		34.078.484,07
a) Bukaeran kobratu gabeko zordunak	4.431.711,44	
b) Bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak	4.178.621,43	
c) Bukaerako diruzaintzako funts likidoak	33.825.394,06	
Eragindako diruzaintzako gerakina	14.082.339,50	
Gastu nagusien diruzaintzako gerakina	19.996.144,57	

OHARRA: Kontuan hartu behar da diruzaintzako gerakina guztira 34.078.484,07 €-koa bada ere, hurrengo ekitaldian zenbait gastu egiteko konpromisoa hartu dela jada, 20.908.601,33 €-ko gastua egiteko konpromisoa, hain zuzen ere; horrenbestez, erabil daitekeen diruzaintzako gerakina 13.169.882,74 €-koa da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 10eko 10/2003 Foru Arauaren 49. artikulua dio likidazioa Tokiko Erakundeko presidentek onetsi behar duela, eta osoko bilkurari jakinarazi.

HONEN BITARTEZ, honakoa erabaki dut:

1. Onetsi egingo dira 2010eko ekitaldiko udal aurrekontuaren aurrekontu-emitza eta diruzaintzako gerakina.

2. Onespen hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergai-zerrendan sartuko da.

Udalaren kontu-hartzaileak emandako aldeko txostena ikusi da.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1 Alkate jaunak 179/2011 Dekretuaren arabera 2010eko ekitaldiko udalaren aurrekontu-emitza eta diruzaintzako gerakina onetsi dituela jakitea.

2 Onespen hau osoko bilkurak egingo duen lehenengo bileran jakinaraztea.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Alkateak 2010eko ekitaldiko udal aurrekontuaren aurrekontu-emitza eta diruzaintzako gerakina onesteko eman duen Dekretuaren **jakinaren gainean geratu da** udalaren osoko bilkura.

2.- SOINU ATADIA FUNDAZIO PUBLIKOAREN 2010eko EKITALDIKO AURREKONTUAREN AURREKONTU-EMITZA ETA DIRUZAINZAKO GERAKINA

ONESTEN DITUEN ALKATETZAREN DEKRETUAREN BERRI EMATEA: Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2011ko martxoaren 1eko 39. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, hark berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Aztertu da Alkatezaren 2011ko otsailaren 22ko 180. Dekretua; honakoa dio, hitzez hitz:

180/11 DEKRETUA

“Aztertu dira Soinu-Atadia Fundazio Publikoaren 2010eko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaiza eta diruzaintzako gerakina; hona hemen laburpena:

AURREKONTU-EMAITZA		
Aintzatetsitako eskubide garbiak	2.164.479,06	
Aintzatetsitako obligazio garbiak	2.118.445,14	
Ordaindu gabeko obligazioen saldoa gutxitzea	0,00	
Kobratu gabeko eskubideen saldoa gutxitzea	0,00	
Aurtengo aurrekontuaren emaitza	46.033,92	
Itxitako aurrekontu-emaiza	0,00	
AURREKONTU-EMAITZA	46.033,92	
Finantzazioko desbideratze positiboak	0,00	
Finantzazioko desbideratze negatiboak	0,00	
Diruzaintzako gerakinekin finantzatutako gastuak	157.529,53	
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA		203.563,45

DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EMAITZA		
Ekitaldi-bukaeran kobratu gabeko zordunak		480.409,50
a) Aurtengo aurrekontua	479.454,28	
b) Itxitako aurrekontua	2.902,70	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketak	955,22	
d) Zalantzazko kobrantzako zordunak	-2.902,70	
e) Aplikatu gabeko diru-sarrerak	0,00	
Ekitaldi-bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak		268.285,28
a) Aurtengo aurrekontua	49.110,54	
b) Itxitako aurrekontua	0,00	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketen hartzekodunak	219.174,74	
d) Diru-sarrerak itzultzeko hartzekodunak	0,00	
e) Aplikatu gabeko ordainketak	0,00	
Bukaerako diruzaintzako funts likidoak		82.093,52
a) Ekitaldi-bukaeran kutxan dagoena		

b) Diruzaintzako soberakinak		
Diruzaintzako gerakina, guztira		294.217,74
a) Bukaeran kobratu gabeko zordunak	480.409,50	
b) Bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak	268.285,28	
c) Bukaerako diruzaintzako funts likidoak	82.093,52	
Eragindako diruzaintzako gerakina	0,00	
Gastu nagusien diruzaintzako gerakina		294.217,74

OHARRA: Kontuan hartu behar da diruzaintzako gerakina guztira 294.217,74 €-koa bada ere, hurrengo ekitaldian zenbait gastu egiteko konpromisoa hartu dela jada, 3.958,90 €-ko gastua egiteko konpromisoa, hain zuzen ere; horrenbestez, erabil daitekeen diruzaintzako gerakina 290.258,84 €-koa da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 10eko 10/2003 Foru Arauaren 49. artikulua dio likidazioa Tokiko Erakundeko presidentek onetsi behar duela, eta osoko bilkurari jakinarazi.

HONEN BITARTEZ, honakoa erabaki dut:

1. Onetsi egingo dira Soinu-Atadia Fundazio Publikoaren 2010eko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaiza eta diruzaintzako gerakina.
2. Onespen hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergai-zerrendan sartuko da.

Udalaren kontu-hartzaileak emandako aldeko txostena ikusi da.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

- 1 Alkate jaunak 180/2011 Dekretuaren arabera Soinu-Atadia Fundazio Publikoaren 2010eko ekitaldiko udalaren aurrekontu-emaiza eta diruzaintzako gerakina onetsi dituela jakitea.
- 2 Onespen hau osoko bilkurak egingo duen lehenengo bileran jakinaraztea.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Alkateak Soinu-Atadia Fundazio Publikoaren 2010eko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaiza eta diruzaintzako gerakina onesteko eman duen Dekretuaren **jakinaren gainean geratu da** Udalaren osoko bilkura.

3.- EUSKARAREN ERAKUNDEA ERAKUNDE AUTONOMOAREN 2010eko EKITALDIKO AURREKONTUAREN AURREKONTU-EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO GERAKINA ONESTEN DITUEN ALKATETZAREN DEKRETUAREN BERRI EMATEA: Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2011ko martxoaren 1eko 40. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, hark berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Aztertu da Alkatetzaren 2011ko otsailaren 22ko 181. Dekretua; honakoa dio, hitzez hitz:

DEKRETU ZK.: 181/11

“Aztertu dira Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoaren 2010eko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaiza eta diruzaintzako gerakina; hona hemen laburpena:

AURREKONTU-EMAITZA		
Aintzatetsitako eskubide garbiak	1.205.065,67	
Aintzatetsitako obligazio garbiak	1.201.262,55	
Ordaindu gabeko obligazioen saldoa gutxitzea	0,00	
Kobratu gabeko eskubideen saldoa gutxitzea	0,00	
Aurtengo aurrekontuaren emaitza	3.803,12	
Itxitako aurrekontu-emaiza	0,00	
AURREKONTU-EMAITZA		3.803,12
Finantzazioko desbideratze positiboak		0,00
Finantzazioko desbideratze negatiboak		0,00
Diruzaintzako gerakinekin finantzatutako gastuak		34.526,92
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA		38.330,04

DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EMAITZA		
Ekitaldi-bukaeran kobratu gabeko zordunak		38.903,98
a) Aurtengo aurrekontua	36.424,81	
b) Itxitako aurrekontua	11.473,23	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketak	2.479,17	
d) Zalantzazko kobrantzako zordunak	-11.473,23	
e) Aplikatu gabeko diru-sarrerak	0,00	
Ekitaldi-bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak		72.941,40
a) Aurtengo aurrekontua	32.199,00	
b) Itxitako aurrekontua	0,00	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketen hartzekodunak	40.742,40	
d) Diru-sarrerak itzultzeko hartzekodunak	0,00	
e) Aplikatu gabeko ordainketak	0,00	
Bukaerako diruzaintzako funts likidoak		152.060,66
a) Ekitaldi-bukaeran kutxan dagoena	0,00	
b) Diruzaintzako soberakinak	0,00	
Diruzaintzako gerakina, guztira		118.023,24
a) Bukaeran kobratu gabeko zordunak	38.903,98	
b) Bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak	72.941,40	
c) Bukaerako diruzaintzako funts likidoak	152.060,66	
Eragindako diruzaintzako gerakina	0,00	
Gastu orokorren Diruzaintzako gerakina (konprometitu gabea guztira)	118.023,24	

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 10eko 10/2003 Foru Arauaren 49. artikulua dio likidazioa Tokiko Erakundeko presidenteak onetsi behar duela, eta osoko bilkurari jakinarazi.

HONEN BITARTEZ, honakoa erabaki dut:

1. Onetsi egingo dira Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoaren 2010eko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina.
2. Onespen hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergai-zerrendan sartuko da.

Udalaren kontu-hartzaileak emandako aldeko txostena ikusi da.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

- 1 Alkate jaunak 181/2011 Dekretuaren arabera Euskararen Erakundea erakunde autonomoaren 2010eko ekitaldiko udalaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina onetsi dituela jakitea.
- 2 Onespen hau osoko bilkurak egingo duen lehenengo bileran jakinaraztea.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Alkateak Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoaren 2010eko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaiza eta diruzaintzako gerakina onesteko eman duen Dekretuaren **jakinarean gainean geratu da** Udalaren osoko bilkura.

4.- 2/2011 KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEA, 2010EKO EKITALDIKO KONPROMETITU GABEKO DIRUZAINZAKO GERAKINAREN KONTURA: Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2011ko martxoaren 1eko 46. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, hark berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udalkutxak 2010. urteari begira egindako behin betiko likidazioaren ondorioz aurkeztutako datu txarrak kontuan izanda, Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazitako aurrelikidazioari dagokionez (-269.822,00 €), bai eta 2009rako egindako konturako emateen eta urte bereko behin betiko likidazioaren arteko ezberdintasunen arabera itzulketetan aplikatutako irizpidearen zorrotasunari (zorra: 3.972.198,00 €) dagokionez ere, Udalaren Osoko Bilkurak onetsitako Aurrekontuan izandako eragina dela-bide 2011ko ekitaldiari begira, ondokoa izango da:

Diru-sarrerak

“Diru-sarrera nagusiak-udalkutxa” (2010eko aurrelikidazioa) kontzeptuaren barruan jasotako 1.144.000,00 euroko zenbatekotik bakarrik 875.068,00 euroko zenbatekoa bilduko da. Hau da, kontzeptu horren ondorioz 269.822,00 euroko diru-sarrera baxuagoa bilduko da.

Gastuak

“Partekatutako arriskuaren amortizazioa” 01200/01000/932.99.00 partidan jasotako 1.324.066,00 euroko zenbatekotik 1.941.761,00 euroko gastu erreala egingo da, betiere faktore batzuen ondorioz:

Behin betiko likidazioa baxuagoa (269.822,00 euro).

Itzulketa 2011ko urtarrilean eta otsailean zor osoa aintzat hartuta (3.972.198,00 euroko zenbatekoa 36 hilabeteetan, 2010eko aurrelikidazioaren arabera ezarritako diru-sarrera nagusiak kontuan izan gabe). Hau da, 2011ko martxotik 2013ko abendura hilero 84.601,54 euroko zenbatekoa itzuliko badugu ere, 2011ko urtarrilean eta otsailean hilero 110.338,83 euroko zenbatekoa itzuli dugu. (51.474,58 euro gehiago).

BFaren zerbitzu teknikoek 2011ko aurrekontuaren zirriborroa prestatzeko unean komunikatutako irizpidearen aldaketa. Halaber, itzulketa egiteko irizpidea 3.972.198 euroko zorra hiru urteetan banatzea izan da, eta horrenbestez, 1.324.066,00 euroko itzulketa eta zenbateko horretatik 2011ko ekitaldian, hain zuzen, 1.144.000,00 euroko zenbatekoa aurrelikidazioaren bidez eskainitako diru-sarrera nagusiekin konpentsatuko da (gaur egun, 875.068,00 euroko zenbatekoa behin betiko likidazioarekin). Gaur egun, hau da jasotako irizpidea:

2009an ordaintzeko dagoen zorra guztira hau da:3.972.198,00 €
2011ko urtarrilean eta otsailean ordaindutakoa kenduta:- 220.677,66 €
2010eko likidazioan Udalaren alde ordaindutako saldoa kenduta:- 875.068,00 €

2009an ordaintzeko dagoen zorra guztira:2.876.452,34 €
34 hilabeteetan zatituta (11ko martxotik 13ko abendura):34 hilabete

Hilean, guztira84.061,54 €

Hau da, 2011rako itzulketa hau da: 1) 2010eko likidaziotik 875.068,00 euro gehiago; 2) 220.677,66 euroko zenbatekoa itzulita 2011ko urtarrilean eta otsailean eta 3) 846.015,40 euroko zenbatekoa itzultzeko 2011ko martxoaren eta abenduaren artean (84.601,54 euro bider 10 hilabete). Guztira: 1.941.761,06 € eta aurrekontuan 1.324.066,00 euroko zenbatekoa.

Ondorenez, beharrezkoa da gastuen aurrekontuaren 01200/01000/932.99.00 partidara 617.695,06 euroko kreditu gehigarria zuzkitzea, 2010eko ekitaldian konprometitu gabeko Diruzaintzako Gerakinaren kontura, BFAren zorra itzultzeko 2011ko martxotik abendura bitarteko kuotak ordaintzeko.

Horren guztiaren ondorio positiboaren arabera, ekitaldi honetan itxarondako zorraren zenbatekoa baino handiagoa amortizatzean, 12/31n jasotako zor bizia, orobat, ezarritakoa baino baxuagoa izango da (2.030.436,96 euro).

Gauzak horrela, positiboa da zalantzarik gabe aurreikusi ezin den abagune ekonomikoan Leioako Udalak 2012 eta 2013. urteetarako aurrekontu-ekitaldietan aurre egin beharreko zorra itzultzeko, hori erabat ezereztu arte, itxarondakoa baino baxuagoa izango dela.

Hain zuzen ere, konturako emateek Udalkutxaren hurrengo 2 urteetarako behin betiko likidazioekin bat egiten dutela uste izanda, BFArekiko zorra ezereztzeko ekitaldi horietako aurrekontuetan jasotako zenbatekoa 1.015.218,47 eurokoa da ekitaldi bakoitzeko. Halaber, 2011an 1.941.761,06 euroko zorra ordaindu behar izan du.

Kredituen aldarazpena tramitatzeari dagokionez, Toki Ogasunen testu bategina arautu duen martxoaren 5eko 2/2004 Errege Dekretuak eta berau garatu duen apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuak hainbat espediente ezartzen dituzte aurrekontua garatzen deneko ekitaldiko diru-sarrera eta gastuetara moldatzeko. Era berean, Bizkaiko Lurralde Historikoko araudi espezifikoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak eta gainerako foru dekretuek ere kredituak aldarazteko espedienteak aurreikusten dituzte.

2010eko DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOAREN PENTZURA KREDITUAK ALDARAZTEKO BIGARREN ESPEDIENTEA

MC MOTA	KREDITUAREN JATORRIZKO PARTIDA Diru-sarreraren aurrekontua	KREDITUA	KREDITUAK JASOKO DITUZTEN PARTIDAK Gastuen aurrekontua	KREDITUA
Konprometitu gabeko DGren kontura egindako gehigarria	870/01 Diruzaintzako gerakina	617.695,06	01200/01000/932.99.00 Partekatutako Arriskuaren Amortizazioa	617.695,06
	PARTIDA, GUZTIRA	617.695,06		617.695,06

Data horretan eskuragarri dagoen Diruzaintzako gerakina, kredituak aldatzeko espedientearen erabilitako zenbatekoa jadanik kenduta, 12.552.187,68 eurokoa izango da.

Ohiz kanpoko kredituak eta kreditu gehigarriak onesteko eskumena udalaren osoko bilkurari dagokio, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategineko 177.2. artikuluan eta

apirilaren 20ko 500/1990 EDren 37. eta 38. artikuluetan xedatutakoaren arabera, aurrekontuek dituzten izapide eta betekizunei eutsita. Kredituak aldatzeko espediente horiek onesteko quorum berezirik ezarri ez denez, nahikoa izango da aldeko botoen gehiengo sinplea (apirilaren 2ko 7/1985 Legea).

Aldaketa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren toki-erakundeen aurrekontuari buruzko abenduaren 15eko 10/2003 Foru Arauaren 34.2 artikulua arabera finantzatuko da, diruzaintzako gerakin garbiarekin batera, eta aipatutako Foru Arauaren 15, 17 eta 18. artikuluan ezarritako Aurrekontu Orokorretako informazioari, erreklamazioei eta publizitateari eta errekurtsioei buruzko arauak aplikatuko dira.

Horren ondorioz, eta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan eta apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuan xedatutakoa zein Leioako Udalaren Aurrekontu Orokorriari buruzko Betearazpen Oinarrietan eta txostenean aipatzen den Foru Araudian ezarritakoa aintzat hartuta, kontu-hartzaileak uste du ez dagoela eragozpenik, 2011ko kredituak aldatzeko 2. espedientea onesteko.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

- 1 2/2011 ZENBAKIA kredituak aldarazteko espedientearen (irizpen honetan adierazitakoa) aldeko irizpena ematea, 2010eko konprometitu gabeko gerakinaren kontura.
- 2 Hori onesteari buruzko puntua Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.
- 3 Espedientea jendaurrean azalduko da 15 eguneko epean eta, horretarako, horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Tokiko Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan, Toki Ogasunen testu bategina arautu duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan eta berari garatzen duen apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuan aurreikusitakoa aintzat hartuta.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** 2/2011 zenbakiko kreditu-aldarazpena onestea, 2010eko ekitaldian konprometitu gabeko diruzaintzako gerakinaren kontura, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazten den bezala.

5.- UDAL-LOKALEN GARBIKETA-ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PROZEDURAREN

HASIERA Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2011ko martxoaren 8ko 33. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udalaren Zerbitzu Teknikoek jakinarazi dutenez gero, udalaren lokalak garbitzeko zerbitzuak kontratatzekeko prozedurari buruzko administrazio-klausulen agiriak nahiz teknika arautzaileak idatzi dira, betiere oinarritzko ezaugarri hauek kontuan izanda:

- Lizitazio-proposamena (oinarrizko eskaintza), 2.700.000,00 € (BEZ barnean hartuta), urteko oinarriarekin.
- Hori egiteko epea, lau (4) urtekoa izango da, beste bi (2) urtez luzatzeko aukerarekin.
- Langileen subrogazioa, lizitatzaillea gaur egun atxikitako langileen mende subrogatuko da. Hain zuzen ere, zerrenda hori agiriaren I. Eranskinean jaso da. Gisa berean, adjudikaziodunak langileen lan-eskubide guztiak nahiz une honetan indarrean dagoen lan-ituna errespetatu beharko ditu.
- Eskaintzen baremazio-irizpideak.

1) APLIKAZIO AUTOMATIKOAREN EMAITZA EZ DIREN BAREMAZIO-IRIZPIDEAK, BALIO-JUDIZIOEN ARABERA.

Oinarrizko eskaintza: Garbiketa-programa. Zerbitzuaren programa. Lanaren antolaketa.	Otik 36 puntura
Oinarrizko eskaintza: Kalitate Kontrola eta Gainbegiratzea	Otik 6 puntura
Eskaintako hobekuntzak	Otik 6 puntura
Guztira	48 puntu

2) AUTOMATIKOKI APLIKATZEN DIREN IRIZPIDEAK.
Oinarrizko eskaintzaren prezioa: Otik 52 puntura.

GUZTIRA: 100 puntu

Hirigintza eta Etxebizitza, Herri Lan eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak adierazitakoaren ariora, Udalaren Bulego Teknikoak idatzitako agirien edukiaren aldeko informazioa emango duela adierazi du, kontratazio-prozedura abian jartzeko oinarritzat jotako osoko bilkuraren akordio egokia onetsi ahal izateko.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du**, udalaren lokalak garbitzeko zerbitzuak kontratatzeko prozedura abian jartzea, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

6.- ELEXALDEKO UTEren IDAZKETA, UDALAREN LOKALAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN PREZIOEI DAGOKIENEZ: Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2011ko martxoaren 22ko 52. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, hark berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Hirigintza eta Etxebizitza, Herri Lan eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 33. zenbakiko irizpenaren bidez, udalaren lokalak garbitzeko zerbitzuak kontratatzeko prozedura abian jartzeko agirien aldeko irizpena eman da, eta gai hori hurrengo osoko bilkuran jorratuko da.

ELEXALDEKO UTEk idazkia aurkeztu du, eta bertan, udalaren lokalak garbitzeko zerbitzua hurrengo aldiari esleitu arte prezio batzuk zehaztea eskatu da, %2,9ko hazkundearekin, hurrengo xehetasuna aintzat hartuta:

UDAL-ERAIKIN ETA -LOKALAK	2010. URTEA	2011. URTEA
SAN BARTOLOME HI	6.606,70	6.798,29
ARTAZA HI	7.399,67	7.614,26
LAMIAKO HI	8.855,30	9.112,10
TXOMIN ARESTI HI	9.470,42	9.745,06
MENDIBILE HI	3.302,70	3.398,48
UDALETXEA	7.461,73	7.678,12
BEHARGINTZA	1.521,64	1.565,77
LANGILERIA 180	588,37	605,43
BULEGO TEKNIKOA	2.532,54	2.605,98
DENA PLANA (SAKONETA KIROLDEGIAREN ETXABEA)	1.775,26	1.826,74
SAKONETA KIROLDEGIA (Zabaltzea)	27.993,04	28.804,84
KANDELAZUBIETA KIROLDEGIA (Zabaltzea)	4.345,69	4.471,71
SARRIENAKO INSTALAZIOAK	10.971,88	11.920,07
ONDIZKO PROBALEKUA	777,40	799,94
KULTUR LEIOA	18.373,56	18.906,39
SAN BARTOLOME KULTUR ARETOA	2.113,78	2.175,08
LAMIAKO ANTZOKIA	626,31	644,47
TXORIERRI KULTUR ARETOA	556,72	572,86
ERREKALDEKO ERRETIRATUEN ETXEA	5.357,72	5.513,09
LAMIAKOKO ERRETIRATUEN ETXEA	1.070,12	1.101,15
PINUETA ADINEKOEN ETXEA	2.959,34	3.045,16
TXORIERRIKO ADINEKOEN ETXEA	786,97	809,79
ERREKALDE ERRETIRATUEN ETXEKO TABERNAKO KRISTALAK	175,68	180,78
PINUETA ADINEKOEN ETXEKO TABERNAKO KRISTALAK	267,51	275,26
LAMIAKO ERRETIRATUEN ETXEKO TABERNAKO KRISTALAK	343,16	353,12
UDAL-ALDAGELA ETA -BILTEGIAK	1.951,41	2.008,00

AGIRITEGIA	507,21	521,92
ANDRAK	1.014,43	1.043,85
ERROTA ZAHARRA	89,93	92,54
GIZARTE ZERBITZUAK	1.521,65	1.565,78
IBARLAN ERAIKINA Hasiera: 2009/01/20	6.115,00	6.262,33
GIZARTE ZERBITZUAK II (SABINO ARANA ET. 67)	693,46	713,57
HAURRESKOLA	934,00	961,09
GAZTEGUNEA	3.295,77	3.391,35
GUZTIRA	142.356,08	146.484,41
BEZ (% 16)	25.624,09	26.367,19
GUZTIRA, BEZa barne	167.980,18	172.851,60

Horrez gain, Erakunde Autonomoen, Soinu-Atadia Fundazio Publikoaren eta Euskararen Erakundearen garbiketa-zerbitzua berrikusteko proposamena egin da.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

- 1 Udalaren lokalak garbiketa-zerbitzuari buruz kanonaren %2,9ko hazkundera onetsi arte, zerbitzuaren hurrengo esleipena egin arte.
- 2 Erakunde Autonomoei UTEk proposatutako berrikuspena helaraztea, Zuzendaritza Batzordeek, hala denean, berrikuspena onetsi dezaten.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak aho batez erabaki du udalaren lokalak garbitzeko zerbitzuari buruzko kanonari buruzko %2,9ko hazkundera onestea, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazten den bezala.

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

7. ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO EBAZPENAK, 2011-02-17TIK 2011-03-23RA. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan

artxibatzeko kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak, azter ditzaten.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Dekretu batzuk aipatu nahi ditugu.

Lehenengoa 2011ko martxoaren 23ko **307.** zenbakiko dekretua da. Izatez, Zerbitzuen Batzordearen bidez Giza Baliabideetako arduraduna kontratatuko da. Gai hori Barne Araubidearen Batzordean aztertu zen, eta gure ustez Giza Baliabideetako TAG arduradunaren lanpostua sortu beharko litzateke, eta orobat, presarik gabe jardun behar da, Giza Baliabideetako antolakuntzak erritmo apala behar du eta.

Lanpostuaren ezaugarriei dagokienez, Gobernu Taldeak oso prestakuntza murrizgarria defendatu zuen. Izan ere, gure Taldearen iritziz, Zuzenbideko Lizentziatura bakarrik eskatzeaz haraindi kokatu behar da. Izan ere, izendapen-dekretua aztertuz gero, Gobernu Taldeak egindakoaren zergatia ulertuko dugu, hau da, badirudi aurreikusita zegoela lanpostu hori beteko zuen pertsona zein izango zen, eta jarduketa horrekiko desadostasuna agerian utzi nahi dugu, batik bat, Udalaren giza baliabideen kudeaketa egokia eragozten duelako.

Bestalde, 2011ko otsailaren 28ko eta martxoaren 7ko **203. eta 236.** zenbakietako dekretuak aipatu nahi ditugu. Dekretu horietan Leioari buruzko liburua inprimatu edo editatzeko zerbitzuen kontratazioa jasotzen da. Dekretu horien arabera, udalerriko etxe ezberdinetako postontzietara data hauetan botatutako liburua dekretu horietan aipatutakoa da, eta guztira 32.337,80 euroko kostua izan du Leioako Udalaren 12.500 libururi zuzenduta.

Halaber, Estatuko arauketa onetsi da, eta horren ariora, martxoaren 29tik aurrera ezinezkoa izango da udalak inaugurazioak edota bestelako jarduketak egitea, eta hori guztia aurretik egindako jarduketa ez hain erabilgarriak saihesteko. Izatez, gure iritziz, Udal horren jarduketa garatzeko, 32.000 euroko gastuarekin udalerriko postontzira botatzeko liburuari begira, beharbada, beharrezkoa izango da arauketa berria, batez ere, halako egitateak saihesteko, are gehiago, krisialdi ekonomikoan. Beraz, gastua murriztu izan behar da, Udal horrek egindako jarduketaren ondorioz, dirua xahutu egin duela kontuan izanda, horren azpian hurrengo hauteskundeetarako alkate jauna sustatuta, eta halakorik egiten bada, gastua alderdi politikoak ordaindu beharko du, eta ez, ordea, erakunde publikoak.

Nolanahi ere, jarduketa hori ez da arraroa, Alkate horren eskutik egin dela kontuan izanda. Gainera, horren agintaldia hasi bezain laster, 2007ko urrian, 70.000 euroko zenbatekoa ordaindu zen bulegoa egokitzeko eta agintaldiaren amaieran 30.000 euroko zenbatekoa erabiliko du aurretik aipatutako liburua argitaratu eta udalerrira osoan banatzeko. Horrenbestez, hori guztia Alkatearen jarduteko moduarekin bat dator eta gure desadostasuna agerian utzi nahi dugu, baliabide publikoak bidegabe erabili direlako.

Aipatu beharreko azken dekretua 2011ko martxoaren 15eko **276.** zenbakiko dekretua da. Hain zuzen ere, bertan udalerriko zenbait kaleren izenak aldatu dira. Halaber, gai hori Barne Araubidearen Batzordean aztertu zen, eta bertan gure iritzia eman genuen, baina gure aburuz, gure iritzia Osoko Bilkuran adierazi behar dugu.

Lehenbizi, kale-izendegitik hiru etarren izenak kendu direlako poztasuna adierazi nahi dugu. Izan ere, gure iritziz, ezinezkoa da erakunde demokratiko eta publikoan kaleetan halako izenak ezartzea eta horiek ezabatzea puntu egokia izan da gizartearentzat orokorrean eta Leioarentzat bereziki.

Bigarrenez, ekintza hori epai judizialaren ondoriozkoa da, eta hori ez da Gobernu Taldearen ekimen propioaren ondoriozkoa, baina egia da Txikia Kaleari buruzko epaiarekin zerikusia duen errekurtsioa zegoela, baina baita ere kale baten izenari buruzko epai irmoa ere bazegoen, eta ondorenez, jarduketa nahitaezkoa izan dela baieztatu daiteke. Beraz, triste da, orain dela urteak egin behar baitzen, EAJren aurreko alkateren batek, hain zuzen,

eta ez da egin horrela, eta nola defendatu den ikusi behar izan dugu, oraintsu, udal-ahala, aipatutako kaleen izenei eusteko. Hori dela bide, jarduketa oso berandu egin dela azpimarratu behar dugu, eta nahitaezkoa izan da, izen horiek ikusteko inoiz berandu ez dela aintzat hartuta.

Basarteri begira orain atxikitako izenei dagokienez, basoen arteko egoera aipatu da, Txikia Etorbide zaharraren kokapena kontuan izanda, eta beste bi izenei -Euzko Gudariak eta Felipe del Río- dagokienez, Alkatearen eta Gobernu Taldearen unibertsoa zein den erakutsi da. Izan ere, udalerriko kultura nahiz arte munduko pertsonak nabarmentzeko izenak ezarri dira, eta Leioan, aldiz, askatasunaren eremua adierazten duen izena ezarri beharrean, Zinegotziak hamar urte baino gehiago eskoltekin lan egiten dugu. Alkatetza ez da izan sentikorra gai horri begira, eta ez dute aintzat hartu garai hartan kale bat "Askatasuna" izendatzeko proposamena.

Bestalde, gure ustez, Etxebarrieta anaiei buruzko kalea Guardia Zibilari buruzkoa izan beharko litzateke anai horietako baten ondorioz. Hain zuzen ere, biktimari egindako aintzatespen zilegia izango da, hainbat urteetan kaleak hiltzailearen izena ezarrita izan ondoren.

Aurrekoa gorabehera, aukera nagusitzat jota, beste batzuk zeuden, musikaren, Unibertsitatearen, kirolaren etab.en mundua kontuan hartzen den bezala, edo gure udalerrian nabarmendutakoa aintzat hartuta. Hala ere, EAJrekin osatutako alkate eta Gobernu Talde horren unibertsora abiatu gara: Gerra Zibilera, eta horrela Euzko Gudariak eta Felipe del Río izenak ezarri ditugu, gerra zibilean zoritxarrez hildako borrokalari errepublikarra izan dena, baina jakina bi taldeetan hildakoak egon ziren, eta beharbada borrokalari errepublikarrari izena ezartzeko aukera dago, baina iraganean kokatuta dagoela adierazi nahi dugu, hots, Gerra Zibilean, eta horrela, orain dela hogeita hamar urte esanahia zuten izenak ezarri ziren. Izatez, garai hartan ulergarriagoa zen gizartearen eta historiaren ikuspegitik, baina hori ez da berezkoa 2011. urtean, eta Gobernu Talde horrek jardundako gizarte- eta politika-kontzeptuen adierazgarri da.

Azken batean, modu egokiagoan jardun ahal izan da, eta udaleko talde guztiekin adostasuna erdiesteko aukera egongo litzateke, ziur nago eta adostasunera iritsiko ginatekeela. Hain zuzen ere, gure poztasuna agerian utzi nahi dugu, gure kale-izendegitik etarren izenak desagertu baitira.

PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak esandakoaren laburpena:

Leioaren irudiari buruzko liburuaren **285/11 Dekretuaren** kasuan, 30.000 edo 31.000 euroko kostuarekin, Alkateak aurkezpenean esan duen bezala, irudia hitzak baino baliagarriagoa da, eta herritarrei hori plazaratzea gure ustez nartzisismo hutsa da, informazioa ematea baino, eta horrez gain, badirudi hauteskudeen bezperan garailearen irudia islatzeko asmoa zuela, hagiografia antzekoa, bederen.

Gainera, ildo bereko dekretu gehiago daude, hala nola, 285/11 -liburua inprimatzeko fakturari buruzkoa- eta 303/11 dekretua -"sarao"ri buruzkoa, Alkate jaunak esan duen bezala-, eta Mendibile Jauregian egindako ekitaldiari buruzkoa da, 16.000 euroko kostuarekin, , eta horretarako, Talde horrek gonbitea jaso zuen, EAJko hainbat zinegotzik parte hartuta, eta orobat, 299/11 dekretua, Leioaren irudiari buruzko gaiaren inguruko 70.000 euroko kostuarekin. Gure ustez, EAJren hauteskunde-kanpaina garatzeko ardatzak aurreratu nahi ditu, eta gainera, diru publikoarekin alderdi baten zerbitzura egongo da, eta horrela, adibidez, Tele7 katean egindako elkarrizketa aipatu behar dugu, orain dela gutxi egin dena. Beraz, jarduketa horien bidez, gure iritziz, ez dira sortu esparru publikoak herritarrek bat egiteko, liburuaren aurkezpenean adierazi den bezala. Azken batean, azaleko eta beharrezkoa ez den gastua egiten ari dira, eta gaur egungo inguruabarrak kontuan izanda, erasokorra da.

Gure aburuz, autoatsegintasunean murgildu dira, oraindik gauzatzeko dauden

erronkei aurre egiteko esfortzuak bat egin gabe, eta adibide gisa La Avanzadaren arazoa dugu, Pinuetako Iberdrolaren Azpigeltokiarena, hain zuzen. Izan ere, arazoak oraindik indarrean daude, eta isildutako ez-betetzeak argazkia nahasten dute, eta herritarren arteko topaketa ahalbidetu nahi bada, Osoko Bilkura edo Informazio Batzordeen foroa toki egokiena da, hainbeste dekretu eta kostu ekonomiko eragin gabe.

Leioari buruzko liburua eta udalerraren kokapenerako datuen laburpena berriro jorratuz gero -Tele7 katean Alkateak egindako esku-hartzearen gida-, hori guztia harrigarria da, betiere ukitu folklorikoarekin, 30. orrialdean planteatutako proposamena kontuan izanda, hitzez hitz ondokoa adierazita: *gisa berean, udalerriak etorkizunean kirol-eskaintza berriak jasotzeko zume egokiak ditu, golf-zelaia izan daitekeen bezala.*

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:

Ez dakit zein den golfaren eta folkloreaken arteko zerikusia, izan ere, nire ustez, ez dago inolako folklorerik golfarekin lotuta, baina beharbada bai, Arturo Aldecoa azaldu dezakeen gaia izanda, bederen.

Nolanahi ere, planteatutakoa erantzuteko ahaleginak egingo ditut, gaiak Informazio Batzordeei helarazi gabe, -hori ez da ohikoa gure inguruko udalerrietan-, gai horiek beste udalerrietan erantzuteko moduari buruz suminduta nago, eta horrela egiaztatu dut zenbait kasutan, Araudian ezarritakoaren ariora, zuzeneko erantzuna eman nahi da, galderak idatziz aurkeztuko dira, ez baita ohikoa hori Batzordeari helaraztea. Hori dela medio, Barakaldoko udalak, Alderdi Sozialista buruan kokatuta, harrituta utzi nauen funtzionamendu-sistema du. Izan ere, Teknikariak sartzeko, Alkatetzaren edo Arloko zinegotzi ordezkoren baimena behar dute, eta Informazio Batzordeak legeak hala eskatzen duenean deituko dira, eta ezinezkoa izango da aurkako alderdiak gaiak jasotzea. Mozioei dagokienez, Alkateak Osoko bilkuran sartuko diren ala sartuko ez diren erabakiko du, eta eskaera gisa jorratzeko erabakia har dezake. Beraz, ez dute bozkatzen, eta gainera, presazko mozioak aurkezteko aukera jaso da. Azkenean, eskaerei eta galderei dagokienez, idatziz aurkeztu behar dira, eta ezinezkoa da Osoko Bilkuran ahoz aurkeztea, eta Osoko Bilkurari, orobat, erantzunak idatziz aurkeztuko zaizkio, aktan jaso eta inolako eztabaidarik gauzatzeko aukerarik izan gabe.

Halaber, **307/11 dekretuari** dagokionez, Zerbitzuen Batzordea Legean beren beregi jasota ageri da, eta Eusko Jaurlaritzak onetsitako Araudian jasota dago, eta hiru baldintza eskatzen ditu: udal interesdunaren eskabidea, karrerako funtzionarioak bere zerbitzuak betetzen dituen Udalaren aldeko ebazpena, eta funtzionario horren adostasuna, eta kasu horretan, hiru baldintzak betetzen dira, eta lanpostua betetzeko erabateko gaitasuna duen funtzionarioa dago.

Nire iritziz, ez zaude ados egon behar, baina erabat legezkoa da, zeharko ohikoa Administrazioetan eta erabat erabilgarria.

Kaleen izenaren kasuan, kasu batean epaia eman zen, eta errekurtsua aurkezteko aukera egon bazen ere, ez da aurkeztu halakorik, eta bigarren kaleari begira, errekurtsua aurkeztu daiteke, baina ez da egin halakorik.

Aldaketaren jatorriak triste jartzen zaitu, baita kaleei emandako izenak ere, eta askatasunean irabazitakoaren ondorioz eskerrak eman dituzu, eta horrenbestez, nire ustez, izen berriekin askatasuna, legezotasuna eta justizia errespetatzen dira, memoria historikoaz gain, 75 urte betetzen baitira orain gerra hasi zenetik, eta oraintsu jakin dut Leioan bonbardaketak egon zirela, hogeita bost hildako baino gehiago eraginda. Izan ere, bonbardaketa Leioaren erdigunean gertatu zen bi egunetan eta Lamiakon, gutxi gorabehera, bost egunetan aerodromoa zuelako.

Horrez gain, nire sentikortasuna azken denboraldian areagotu egin da, batik bat, Bilboko Aireportuak oraindik Frankoren garaiko pilotu baten izena duelako, hau da, Carlos Haya, eta gainera, orain dela gutxi, Angel Salas Larrazabal izeneko Mola Jeneralaren konfiantzako militarrek Otxandiano bonbardatu egin zuela jakin dugu, hirurogei pertsona

baino gehiago erailda, gehienak zibilak eta Frankori domina ezartzeaz gain, Erregeak Kapitain Nagusi izendatu du.

Nik ulertzen duk PP alderdi politikoa ez zegoela 36. urtean. Izan ere, garai hartan ez zegoen PP alderdi politikoa, baina bai, ordea, aurrekari ideologikoren bat, ezta 2011. urtean, Felipe del Río edo Eusko Gudariak izenak ezartzeko.

Ados egongo ginelakoan nengoen, eta txarto irudituko ez zaizuelakoan nengoen. Pilotuaren izenari dagokionez, gizon hark legezketasuna eta lurralde zehatz bat defendatzen zituen, nik halako kasuetan Aizpunen elkarrizketa gogoratzen dut, eta bertan familiakoen argazkia zuen bere militar-arroparekin bulegoan, eta kazetariak Bizkaiko gerran hildako familiakoari buruz galdetu zion, eta nik esan nuen, zer egiten zuen nafar batek Bizkaiko gerran? Bizkaiko gerran defendatu eta erasotzen zuen norbait zegoen, alderantzizkoa gertatu ez zelako.

Beraz, zorigaitzari buruz hitz egitea..., nire ustez hor islatzen zara, nire ustez ez da zorigaitza.

Non kokatzen da Gobernu Taldea? 36. urtean eta 76. urtean nahiz 2011. urtean kokatzen da, defentsa horri begira, eta horrela, nik uste nuen ez zela izango eragozpena Lamiakoko Dartsenaren izena Felipe del Ríori ezartzea, bertatik aireratzean hil zenez gero, ezta Euzko Gudariak izena ezartzea ere, "Z" hizkiarekin, nire iritziz, euskal armadari egindako aintzatespena da eta, eta Z hizkiarekin egitea mezua da.

Liburuaren kasuan, Isabel García eta Iñaki Gomendiourrutiaren aldeko apustua egin behar dut. Hain zuzen ere, horiek ez ziren liburua banatzearen aldekoak, baina gure inguruan egiten dena ikusi dut, eta horrela, Madrilen kokatutako euskal turismoaren enbaxadorei egindako omenaldiaren kostua 367.000 eurokoa izan zen, gehi BEZ. Kasu horretan, Amaia Monterok abestu zuen, eta kostu hori eta Mendibileko ekitaldiaren kostua alderatzen baditugu, modu proportzionalen dagokigunaren laurdena ordaindu behar izan dugu: hau da, ez da bidezkoa besteari leporatzen zaiona gero norberak egitea.

Bestelako ekitaldiak ere eskaini dira Guggenheim Museoan, Madrilgo Burtsan, eta horietan ere Amaia Monterok abestu zuen, Estatutuaren eguna, etab., 350.000 euroko kostuarekin, 105.000 euroko kostuarekin..., Etxepareren aurkezpena egiteko ikuskizunean bakarrik, dantzetan bakarrik 200.000 euroko zenbatekoa ordainduta. Basaurik 700.000 euroko zenbateko ordaindu zuen bi urteko publizitatean, irrati-kanpainetan, hedabideetan edo Aldizkarietan egindako gauzen erosketan. Barakaldok 400.000 euroko zenbatekoa ordaindu du aurtengo lehenengo hiru hilabeteetan publizitate- eta irrati-iragarkietan. Halaber, Barakaldok, auditatutako datuen ariora, 2009 eta 2010. urteetan hamasei milioi eta erdi euroko zenbateko defizit metatua izan du, eta Leioak, aldiz, zero euroko defizita izan du, 2010. urtean 2011. urtean ordaindu beharreko lau milioi baino gehiagoko zenbatekoa biltzen duten fakturak ditu, Udalkutxak egindako itzulketak du eta hori ez da jaso aurtengo hiru milioi eta erdi baino gehiagoko aurrekontuan. Munoa Finkaren erosketari aurre egin behar dio hamasei milioi euroko zenbatekoarekin, Pinosoloren eragiketa berdin berdina da, eta horrela doan egin zen, noizbait esan duzuen bezala Pinosoloko Kiroldegia Sozialistei esker lortu dela, Pinosolo Kiroldegia Karmelo Sainz de la Mazari esker lortu dela, bederen. Izan ere, urtebete igaro zen Bizkaiko Etxebizitzekin negoziatuta, eta parkea doan eskuratu zen, orubea doan, hirurehun milioi parkea urbanizatzeko, eta BOEren legezko %20koa %30ra areagotzea, eragiketa berari dagokionez, Barakaldon desjabetzeko hamasei milioi euroko zenbatekoa ordaindu da, jadanik epai irmoa dagoelako, ordaindu ezin dutena eta halakoa ez ordaintzeko, korritu-tasa metatuen kasuan, jadanik lau milioi baino gehiagoko zenbatekoa pilatu dute, eta oraindik laurden milia euroko zenbatekoarekin irrati- eta telebista-iragarkietan.

Tele7 kateari dagokionez, Leioako Udalak urtean 700 euroko zenbatekoa ordaindu du "atzo eta gaur" izeneko programa egiteko. Beraz, lau urteetan 2.800 euroko zenbatekoa ordaindu du. Gainerakoak elkarrizketak, prentsa-oharrak eta irrati-iragarkiak dira, eta 3.000 euro baino gutxiagoko zenbatekoa ordaindu da, eta horrez gain, Onda Cero

ekarri behar izan zen auto zaharren Rally herri guztian ikusi ahal izateko.

Liburuaren kasuan, ekainean banatu ahal izan daiteke, baina gogoei eutsi nien eta lehenago egin nuen, erabat legezkoa dena eta horren xedea bi planoak banatzea da, hots, bata Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduta eta bigarrena turistikoa, zati batean, Leioako taxistekin egindako hitzarmenaren bidez, eta jadanik liburua egin zen. Izan ere, argazkiak doan egin dira, eta azkenean kostua guztira familia bakoitzeko 2,33 eurokoa izan da.

Mendibileko ekitaldiak ez du zerikusirik aurrekoarekin, eta herriaren diskurtsoaren ondoriozkoa da, orain dela hilabete batzuk kontratatuta, eta herritarren interesa erakarri nahi izan da, Taldeetako bozeramaileak bilduta, eta kudeaketa-erantzukizunak zutenak, eta azken batean, hurrengo 15 urteetarako enpresarien funtsezko proiektuak sortu nahi izan ziren, eta 5.000 edo 6.000 pertsona gehiago Leioara hurbiltzea erdieste, herri eraginkorra lortzeko.

Bulegoari dagokionez, hori ez da egokia, kilkerrari edo txoriari begiaren errealitatea aztertzea bezala delako, eta Udalak 2007ko instalazio eta ekipamendu guztiak berrizatzeko inbertitutako ehunka mila euroko zenbatekoa gogoratu behar da alor hauei begira: Gizarte Zerbitzuak, Bulego Teknikoa, Udaletxe osoa... bakarrik Alkatetzaren bulegoa lehenengoa izan zen eta horrela egin zen orduan oportetara nindoalako eta Gizarte Zerbitzuen edo Bulego Teknikoaren ratio metro karratua, baina esanda eta egiaztatuta dago, baina ulertu nahi ez duenak ez du ulertuko.

Golfaren gaiari dagokionez, nire iritziz kirol-praktika ona da, are gehiago, golf eskola soila ikasleentzat egokia izango litzateke eta zerbitzu bat udalekoa izateko ez da izan behar %100koa, eta Udal Arkitektoari golf-zelai asko margotzen ikusi dut, eta horiek egiteko proposamenak egon dira, bai pribatuak bai publikoak, eta ez da egin plangintzak halakorik ahalbidetzen ez delako, eta ez zait iruditzen folklorikoa eta txirenea golf-zelaia ezartzea, jende askok hori egin daitekeen galdetu digu.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sainz jaunak esandakoaren laburpena:

Barne Araubidearen Batzordean hitz egin bazen ere, kaleari izena egilesteko egintza Alkateak bakarrik egin dezake, eta horrela egin zuen, eta horrenbestez, bere proposamenaren berri pixka lehenago izan genuen, eta hori dela medio, nire taldea ez da sartu behar gai horretan. Hala ere, ez dut ulertzen nola norbaitek hildako segurtasun-endarretako kide baten izena kale bati ezartzeko proposamena egin dezakeen, eta hildako pertsonari buruz mespretxuz hitz egin daitekeen, hasieran legezkontasuna defendatzen zuenean, bigarrenez herri honen askatasuna indarreko konstituzioaren aurka zeuden faxisten aurka, eta Europako mugimendu faxisten bidez babestuta, hemengoak izan zirenak euren armekin, eta Italiako brigaden bidez, eta Alemaniako abiazioarekin batera, gure lurra suntsitu zuten eta zibilak erail zituzten.

Nire ustez egokia da pertsona batek Defentsa Ministerioaren webgunean agertzen den bezala agertzea, ostean hori bilatzera abiatu nintzelako, eta egin zutena esaten dizute, astakeriak barne, Burgos ere bonbardatu zuelako, aintzatespena izatea gutariko batzuk hori gogoratu dezagun, eta beste batzuk Lamiakon Athletic Kluba jaso zuten kirol-instalazioak baino lehen, aldi berean edo ostean, aerodromoa egon zela lehen aldiz jakinarazteko, bai eta bizia horren alde eman zuten borrokariak egon zirela ere.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Ezker Batuak egindako iruzkinari begira argi eta garbi utzi nahi dut, inola ere ez dudala hitz egin mespretxuz eta ez dudala esan Felipe del Río modu errukarrian hil zenik.

Esanahi dut ez dela unea Gerra Zibilean gertatutako gauzak gogoratzeko. Izan ere, herrialde honek jadanik trantsizioa bizi izan du zauriak ixteko, eta ez da unea historiak jadanik itxitako egitateak gogorazteko, eta horregatik, gure ustez, ez dira egokienak proposatutako izenak, betiere Felipe del Río gaitzetsi gabe.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:

Zati batean ados nago, baina garai hartan aintzatespena egin zenez gero, gure iritziz egokia da orain egitea.

Udalaren osoko bilkurak Alkatetza-Udalburutzaren dekretuen eta Tokiko Gobernu Batzarrean onetsitako ebazpenen (espedientean agertzen direnak) **berri izan du.**

8.- PRESAZKO MOZIOAK:

LEHENENGO MOZIOA:

“HAPNren ALDAKETA BEHIN BETIKO ONESTEA, ETXEBIZITZA BAKOITZEKO GARAJE-PLAZEN KOPURUARI DAGOKIONEZ: Hirigintza eta Garraio, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2011ko martxoaren 29ko 40. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udaleko Zerbitzu Teknikoek HAPNko ordenantzak idaztea ekarri zuten aurrekarien berri eman dute, gutxieneko aparkaleku-kopuruari dagokionez, bizitegitarako erabileraren arabera.

Zehazki, arlo hau honela arautzen da:

“6.3.14. artikulua. Gutxieneko plaza-kopurua, erabilera nagusiaren arabera.....

..... 3 Bizitegitarako Erabilera, 1etik 3ra bitarteko kategoriak (Etxebizitza)

Gutxienez: plaza bat, etxebizitza edo apartamentu bakoitzeko. Baldin eta laurogeita hamar (90) metro koadro erabilgarritik gorako etxebizitzak badaude, plaza bat ezarriko da berrogeita hamar (50) metro koadro erabilgarri edo zatiki bakoitzeko, hau da, laurogeita hamar (90) metro koadrotik gorako etxebizitzaren gaindikinen batura.

Plan Nagusiaren behin betiko onespenerari buruzko Foru Arauek eten dituzten bizitegitarako aldeetan (13B, 14C, 23, 27, 28, 35A, 35B, 37, 38, 43, eta 44), nahitaezkoa da etxebizitza bakoitzeko garaje-plaza bi egotea”.

Idazketa horrek, izatez, arbitrariotasuna dakar. Izan ere, gutxienez gorde beharreko aparkaleku-kopuruan diferentzia dago aldi berean egin diren sustapenetan (adibidez, 7B San Bartolome Hutsik arloa eta 37 Ondiz Hutsik arloa). Bestalde, hegaletan eta maila freatikoetan dauden lursailen tipologia-arazoaren eta gaur egungo ekonomia-krisiaren ondorioz, ezinezkoa da dagoeneko kudeatuta dauden sustapenetan lizentziak ematea (37 Ondiz Hutsik arloa, 38 Leioandi sektorea eta 14 C Earcanal arloa). Ondorioz, Zerbitzu Teknikoek hau proposatzen dute: Foru Aginduek etendako bizitegitarako arloei buruzko paragrafoa kentzea, eta udal-mugarte osoan lehenengo paragrafoko irizpidea bateratzea.

Tokiko Gobernu Batzarrean hartutako 48. zenbakiko ebazpenaren bidez, hasieran onetsi zen 6.3.14 artikulua aldaketa eta espedientea jendaurrean jartzea hogeitaz eguneguz BAO eta egunkarietan iragarkiak jarritz, alegazioak egin ahal izateko.

Jendaurrean azaltzeko epean ez da alegaziorik egin.

Hirigintza eta Garraio, Herri Lan eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak udalaren osoko bilkurak ondoko jarduketak onesteko jatorria ebatzi zuen:

-Behin betiko onestea HAPNren aldaketa puntuala, bizitegitarako erabilerari lotutako garaje-plazaren kopurua betetzeari buruzkoa.

- Iragarki egokia eguneroko prentsan argitaratzea (ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89. art.).
- Espedientea Bizkaiko Foru Aldundiari bidaltzea, Plangintzaren Euskal Erregistroan inskribatzeko.
- Behin betiko onespeneraren erabakien eta hirigintzako arauen testu osoa BAOn argitaratzea, aldaketa Plangintzaren Euskal Erregistroan sartu dela adierazita.

PREMIAZKO BOZKETA

Azaroaren 28ko 2.586/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 91.4 artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, mozioaren premiari buruzko bozketa egin da. Horrenbestez, Udalaren Osoko Bilkurak gai horren **premia onestea** erabaki du, eta jarraian gai horri buruzko eztabaida eta bozketa egin da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** etxebizitza bakoitzeko garaje-plazen kopuruari buruzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa behin betiko onestea, Hirigintza eta Garraio, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

9.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

LEHENENGO GALDERA:

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Galdera hau Barandiaran Institutuari buruzkoa da. Guztiok dakigun bezala, Institutu horrek arazoa du. Izan ere, bi toki ezberdinetan kokatuta dago, bata udalerraren erdian, eta bestea Unibertsitatearen alboan. Zentroan derrigorrezko irakaskuntza dago, eta goian prestakuntza-zikloak eta batxilergoa. Banantze hori gutxi gorabehera orain dela 15 urte abian jarri zen, betiere behin-behineko izaerarekin, baina orain, 2011. urtean, oraindik behin-behineko egoera berari eusten diogu, hau da, toki ezberdinetan kokatutako Institutuaren bi eraikinak.

Egoera hori konpondu egin behar da, eta nire ustez, Udalak badaki hori egin behar dela, eta oraindik egoera horri ez zaio eman inolako konponbiderik. Halaber, dena eraikin batean bildu beharko litzateke, eta beraz, Unibertsitatearen ingurua handitu behar da, edo Zentroan berria egin behar da.

Guk bi galdera ditugu. Zein da Gobernu Batzordearen jarrera arazo horri begira? Zer egin da azken hilabeteetan edo urteetan arazo horri erantzuna emateko, irteera bat aurkitzeko?

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sainz jaunak esandakoaren laburpena:

Hezkuntza Batzordean noizbait adierazi dugun bezala, eta horregatik nik esan nahi dut, Udalaren jarrera bat-egitearen aldekoa izan da, eta horrez gain, udalerraren zentroan ekipamendu osoa eta berria eraikitzeko lehenespenarekin, beste gauza batzuen artean, eskolako garraioaren zarrastelkeria saihesta. Herriaren hirigintza-egoerak jarrera hori islatu du, eta hala, negoziatu egin beharko da eta Alkatean nik baino hobeto dakien gauzak egin dira.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak euskaraz honakoa adierazi du:

Nik hori egin dut arduraldi eskusiboa dagokidalako, eta hala ere, Iñaki Gomendiourrutia Sainzek ez du halakorik.

Galdera bi horiei begira bi erantzun emango ditut.

Bat: Gobernu Batzordearen jarrerari begira, hots, Iñaki Gomendiourrutia Sainzek argi eta garbi azaldu duenez, toki berean kokatu behar da, garai hartan egindako planteamendu berdina da, alderdi guztien oniritziarekin, zentroan ikus badaiteke eta eraikin bakarra, baina eskumena Eusko Jaurlaritzari dagokiola gogoratu behar da.

Bi: Egin dugunaren inguruan eraikin bakarra izan nahi dugula esango dut, baina malguak izan behar gara, eta gobernuaren ahalmenak ezagutu behar ditugu. Hori helarazi diot Zentroko zuzendaritzari.

Gai horren inguruan gogoratu dugun bezala, Zinegotzia izan nintzenean jakinarazpen bat jaso genuen, eta horren arabera, beharrezkoa da udalerraren erdigunean lursaila izatea, batik bat, Institutua egiteko, eta horrela egin zen Aldapabarrena plana. Bestalde, Barandiaran Institutua kokatuta ageri den esparrua gatazka juridikoan murgilduta zegoela jakin dugu, baina Udalaren eta Teknikarien ekimenaren bidez Udalaren izenean erregistratu genuen, eta Gobernuari esan genuen bi aukera zituela: bat eraikina goian eraikitzea, edo bigarrena zentrokoa, gure ideia zentroan egitea dela kontuan izanda.

Aurreko Eusko Jaurlaritza irizpiderik gabe mugitu zen, beldurrekin. Zer pentsatzen zuen udalak? Zer pentsatzen zuen hezkuntza erkidegoak? Zer pentsatzen zuten gurasoek eta irakasleek? Erabakirik hartu gabe legealdia amaitu zen, baina gauza bat argi utzi zuten, hau da, inbertsio-plana dela, eta inbertsio-plan horretan 200.000 euroko zenbatekoa jaso zen aurten proiektua garatzeko, eta 2012 eta 2013. urteetan biak batera hamaika milioi euroko zenbatekoa institutua egiteko. Beraz, horrek esanahi du aurreko Eusko Jaurlaritza hori egiteko asmoa zuela, hau da, eraikina beheko aldean eraikitzeko asmoa.

Ni Gobernuko Ana Balenciaga arduradunarekin egon naiz eta egoera zein den azaldu diot. Epe bat igarotzea utzi dut karguaz jabetu zenetik eta berarengana jo eta gaia planteatu nion. Gaia planteatu nionean, erantzun zidan ikuspuntu pedagogikotik erabakia hartu beharko balu institutua behean kokatzea izango zela, irizpide ekonomikoa erabili beharko balu, ordea, institutua goian erabakitzea izango zela, handitze-prozesua egiteko lau milioi eta bostehun mila euroko zenbatekoa behar delako, eta erdigunean eraikitzeko hamaika milioi euroko zenbatekoa behar delako, baina ez dugu erabakiko ez gauza bat ez bestea, legealdi osoan dirurik ez dugulako Leioan Institutu berri bat eraikitzeko.

Iritzi hori Institutuko zuzendariari helarazi zaio, eta ordezkariarengandik erantzun bera jaso dut.

Hori da erantzuna.

BIGARREN GALDERA:

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Informazio-eskabidea da Udalak Leioako Kirol Sozietatearekin duen hitzarmenari begira.

Udalak Leioako Kirol Sozietatearekin duen hitzarmen horretan hamargarren klausula jasotzen da, diru-laguntzen atalean, eta Sozietatearen jardueretarako urteko diru-laguntzaz gain, hileroko 4.000 euro baino gehiagoko zenbatekoa jaso da belar naturaleko zelaia artatzeko lanak egiteko, bai eta kirol-instalazioetako lorategi-guneak artatzeko ere.

Diru-laguntza horri dagokionez, belar naturaleko zelaia artatzeko irregulartasunak eta arazoak egon direla jakinarazi digute, eta informazio osoa eman nahi dugu diru publikoa behar bezala kudeatzen dela ziurtatzeko xedearekin, eta Kultura eta Kirol Batzordearen bidez giza azaltzea nahi dugu, diru publikoa modu egokian erabiltzen dela egiaztatzeko egiaztagiriak aurkeztuta.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak euskaraz honakoa adierazi du:

Gai horren inguruan ez dut datu askorik eta erantzuna Kultura eta Kiroleko Informazio Batzordeak emango du.

LEHENENGO ESKAERA:

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Lamiako Txopoeta Pinueta auzoaren erdigunearen garapena jaso da. Oraintsu, Hirigintza Batzordean Auzoaren erdigunea garatzeko lan batzuen hasiera aurkeztu digute, eta Hirigintza Batzorde horretan Gobernu Taldeak Zaintzailearen etxea edo Pinuetako Auzoaren Txokolatezko etxetxea bezala ezagututakoa eraisteko asmoa duela helarazi digute. Hain zuzen ere, historiaren ikuspegitik etxe hori Artaza Jauregiarekin lotuta dago, eta Batzordean gure iritzia azaldu dugu, hau da, gure ustez, Zaintzailearen etxeari eutsi egin beharko litzaioke, batik bat, horren balio historiko eta kultura direla medio, beharbada hasierako xedea eskuratzeko erabili ezin bada ere, baina ulertzen dugu kultura-xedea izan dezakeela, eta horri eustea gure udalerrian oso balio garrantzitsua izan da.

Osoko bilkura horren bidez eskaera hau Alkatetzari eta Gobernu Taldeari helarazi nahi diegu, Lamiako Pinueta Txopoeta Auzoaren erdigunearen garapen horretan Zaintzailearen etxeari eutsi, hori berreskuratu, birgaitu eta Kultura Zentro gisa ezartzeko aukera kontuan izanda.

Gogoratu nahi dudana bezala, orain dela hiru urte eta erdi Pinuetako parkingaren garapen osoa abian jarri zen eta une horretan Alkatetzak eraikin horren balio historiko eta sentimentala azaldu zituen; beraz, ildo beretik, alkateari eta Gobernu Taldeari sentimendu hori eta jokabide hori berreskuratzeko eskaera egiten diegu, bai eta Leioan hain balio handiko ondareari eusteko aukera ere.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:

Eskaera gogoarekin jaso dut. Nire iritzia eman diezazuket, baina horrek ez du esanahi hori bete behar denik.

Gaztelubiden gizarte-zentroa egiteko aukerari begira, Hirigintza Batzordean esan dudana bezala, xedea enpresak botatzea zen, behin horiek kokapen berriak aurkitu badituzte, hirigune horretan eroso egon ez badira, eta eraispinak gertatu ostean, bidaia aprobetxatuko dute ekipamendu sendoa eratzeko. Hori orain dela sei edo zazpi urte esan dut.

Gainera, nire ustez Zaintzailearen etxea bezala ezagututakoa ez da izan Zaintzailearena, bertan hainbeste urte bizi izan direnek esan didatena kontuan izanda, ezpada Artaza finkarena zela, eta ez, ordea, Zaintzailearen etxea, informazio hori Barriocanal Sendiak eta Elkoroarestizabal Sendiak eman digute. Hain zuzen ere, hainbat hamarkadetan etxe hori eskuragarri izan duten sendiak dira. Etxe hori ekipamendu horren edo beste baten zati izan daiteke, hau da, noizbait norbait garagardo-gunea edo taberna txikia izateko proposamenarekin etorri da, baina proposamen informalak izan dira.

Nire ustez, halako gaitan, euliak ez ditugu hil behar kanoikaden bidez. Batzordeak helarazi zidan bezala, ni ados ez nagoen errealitate zehatzak azaldu ziren, baina oker egon naiteke. Eraikinaren balio sentimentalari dagokionez, Leioak eraikin hori orain dela urtebetetik ezagutzen du, eta une horretan hori ixten zuten pinu guztiak kendu ziren, izan ere, aurretik ezinezkoa zen hori ikustea; beraz, ez dago denboran finkatu ez den sentimendurik. Etxe hori oso jende gutxi ezagutu du, ostean ezin dugu aipatu udalerraren orokortasunaren balio sentimentala, halakorik ez baitago.

Etxea bota egin behar da, eta udalaren arkitektoaren txostena badago, hori bota egin behar dela baieztatuko du, ostean hori berriro egiteko. Nire galdera da ea funtsezkoa den bertan berriro eraikitzea edo 80 metro haraindi eraikitzea, San Inazioko Larrako Dorrea

ez dago kokatuta bere jatorrizko tokian, eta gaur egun Sarrikoko Fakultatearen lorategiak apaintzen ditu.

Amaitzeko, gaur egungo lantegiarekin ezer ezin dela egin esango dut, eraikin publikoaren parametroak barnean hartzen ez dituelako, eta hori handiagoa egin beharko litzateke, eta beharbada zentro handiaren ataria izan daiteke.

BIGARREN ESKAERA:

PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak esandakoaren laburpena:

Nire eskaera da hurrengo apirilean nahitaez bi osoko bilkura izango ditugula, uste dut, bat ezohikoa eta bestea ohikoa, eta nire eskaera horiek bat egiteko aukerarik dagoen jakitea da.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:

Eskaera kontuan izango da, baina nahiko konplexua izango da horiek bat egitea. Izan ere, ezohikoa data zehatzetan egin behar da eta Pazko astearekin bat egiten du. Nolanahi ere, hori aztertuko da.

Eta gaueko zortziak eta hogeita bost minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

OE
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,